

Batera

kultur proiektuak elkarrekin

Deialdiaren oinarriak

1.- TESTUINGURUA ETA GAIAK:

Batera talde-finantzazioa egiteko tresna bat da, pertsona askoren arteko lankidetzan oinarritua; ekimen kultural jakin baten garapenari diruz laguntzeko internetek eskaintzen dituen aukerak erabiltzen dira. Eta talde-finantzazioari (crowdfunding) **Oihaneder** Euskararen Etxearen eta **Gauekoak** Elkarteen Federazioaren laguntza erantsiko zaio.

Batera egitasmoa **Itsulapikoa** plataformaren bidez garatuko da.

Itsulapikoa Euskal Herriko edo Euskal Herriarekin zerikusia duten herri proiektu eta egitasmoek behar duten bultzada ekonomikoa lortzeko crowdfunding plataforma bat da. Gure herriko sortzaile, musika talde, kultur kolektibo, herri mugimendu, tokiko ekonomian oinarritutako egitasmo edo proiektu alternatiboentzako diru iturri erreferente izatea da gure helburuetako bat.

Itsulapikoa.eus plataformaren atzean irabazi asmorik gabeko Itsulapikoa Elkartearen izeneko elkarte dago. Elkartearen funtzionamendua gardena eta horizontala da, irekia egongo da aipaturiko helburuekin bat egin eta plataformari modu ezberdinez bere ekarpena egin nahi dion ororentzat. Aipatu den motako proiektu edo egitasmoren bat duen kolektibo edo pertsona orok aukera du crowdfunding plataforma honen bidez herritarren ekarpenak jasotzeko.

Batera egitasmoan, crowdfunding formulari **Oihaneder** Euskararen Etxearen eta **Gauekoak** Elkarteen Federazioaren laguntza erantsiko zaio: aukeratutako proiektuei 1000€tako ekarpena egingo diote aipatu elkarteek. Deialdi horren bidez, herritarren parte-hartzearekin, Gasteizko gazteek garatu nahi dituzten euskarazko ekimen kultural berritzaileen gauzatzea sustatu nahi da.

Agiri honen bidez Gasteizko euskarazko kultura-proiektuen crowdfunding-a bultzatzeko kanpainaren oinarriak zehazten dira, eta komenigarria da arretaz irakurtzea.

Batera deialdira proiektuak aurkezten direnean oinarri horiek onartzen direla ulertuko da.

2.- NORI ZUZENDUTA DAGO?

Crowdfunding-a sustatzeko deialdi honetara 16-30 urte bitarteko **Gasteizko norbanako gazteek** euskaraz garatzeko asmoz pentsatutako edozein kultur proiektu aurkez daiteke.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira adin tarte horretatik at geratzen direnak, baita erakundeak zein elkarteak ere; baina, proiektuak taldean ere aurkeztu ahal izango dira, hau da, norbanako batek baino gehiagok elkarlanean..

3.- PROIEKTU MOTAK:

Gaiak:

Crowdfunding-a bultzatzeko kanpaina honen barruan sartuko dira gasteiztar gazteek euskaraz garatutako kultura-proiektuak. Kulturaren arloan garatzeko edozein ideia kontuan hartuko eta baloratuko da.

Bereziki baloratuko dira ekimen berritzaileak eta euskararen erabileran eragingo dutenak, gazte gasteiztarren sustatze-ahalmenari eta euskararekiko atxekimenduari eragiteko eduki nabarmena dutenak.

Formatuak:

Kulturaren alorreko eta euskaraz garatutako edozein ekimen, ekitaldi, programa, ekoizpen kultural, zerbitzu, teknologiaren garapen... aurkeztu ahal izango da crowdfundinga bultzatzeko kanpaina honetan.

Crowdfundinga bultzatzeko kanpaina batez ere Gasteizko gizarteari zuzenduta dagoenez, formatuaren bidez bilatu beharko da proiektua hiriko kultura eta sorkuntza-beharrekin batzeko erarik onena.

4.- EPEAK ETA EGUTEGIAK

4.1 Proposamenak jaso

2018ko urriaren 16tik abenduaren 16ra, biak barne, irekita egongo da proposamenak jasotzeko epea.

Nola aurkeztu proposamen bat?

Proposamenak aurkezteko nahikoa izango da landu nahi den proiektuaren laburpena oihaneder@oihaneder.eus helbidera bidaltzea.

Parte hartzaileek gehienez ere 2 proiektu aurkeztuko dituzte eta 1 bakarrik hautatuko da kanpainan sartzeko.

Kontuan hartu beharreko eremuak laburpena egiterako orduan:

- Izenburua
- Azpтитulua
- Deskribapen laburra
- Gutxieneko eta gehiengo aurrekontua

- Oinarrizko ezaugarriak eta crowdfundinga bultzatzeko kanpainaren helburuak
- Nori dagoen zuzenduta
- Aurretiazko esperientzia eta lantaldea
- Eskaintzen diren banakako sariak

Proiektuak aurkezteko epea abenduaren 16an bukatuko da, 15:00etan, eta hortik aurrera ez da onartuko proposamen berririk.

4..2.- Hedakuntza- eta prestakuntza-ekintzak

Proiektu bat aurkeztu nahi dutenei ahalik eta informazio gehiena emateko hainbat hedakuntza eta prestakuntza-ekintza antolatuko dira eta komenigarria da parte hartzea:

- 2018ko irailaren 26an: **Batera** egitasmoaren aurkezpen publikoa. **Oihaneder** Euskararen Etxeko, **Gauekoak** Elkarteen federazioko eta **Itsulapikoa** elkarteko kideek azalduko dute ekimena.
- 2018ko azaroaren 7a: Crowdfundingari buruzko prestakuntza lantegia, herritar guztientzat irekia.
- 2019ko urtarrilaren 18a: **Batera** egitasmorako hautatuak izan diren proiektuen komunikazioan prestatzeko lantegi praktikoa (beharrezkoa izango da parte-hartzea).

Ekintza horiei buruzko informazio zehatza nahiz izen emateko eta parte hartzeko moduak web ezberdinetan egongo dira eskuragarri.

Ekintza horietara joatea ez da proiektua aurkezteko ezinbesteko baldintza. Hala eta guztiz ere, parte hartzea guztiz gomendagarria da deialdiko ezaugarriak ezagutzeko, eta **Itsulapikoa** elkarteko kideekin egoteko eta hauek ezagutzeko.

Nolanahi ere, urtarrilaren 18ko komunikazioko berriazko lantegira joatea nahitaezkoa da hautatutako 3 proiektuen arduradunentzat, lantegi horren xedea baita proiektuen sustatzaileak prestatu eta aholkatzea aurrez aurre, modu pertsonalizatuan, gutxieneko finantzaketa lortzeko aukerak indartzeko eta, hortaz, kanpainaren arrakasta handitzeko.

4.3 Proiektuen balorazioa eta hautaketa

Behin proposamenak jasotzeko epea amaitzen denean, proiektuak ebaluatuko dira ondorengo irizpide eta prozeduren arabera.

Balorazio irizpideak

Aukeraketa egiteko, kontuan hartuko da proposamenaren bideragarritasun orokorra eta proiektuak nola egokitzen diren crowdfundingak finantzatzeko bitarteko bezala eskaintzen dituen aukeretara, balorazio-irizpide hauen arabera:

- Zehazteko fasean egotea eta, aurrekontu koherenteaz gain, ekimena modu eraginkorrean garatzeko plan bat izatea. (2 PUNTU)
- Komunikazio-plan bat garatu eta ezartzeko gaitasuna izatea. Hori frogatzeko, komunikazio digitalaren hasierako deskribapen labur bat ipini beharko da Itsulapikoa plataforman, crowdfundinga bultzatzeko kanpainari begira, proiektuak inskribatzeko inprimakiak duen "Hedapena" atalean. (2 PUNTU)
- Proiektua zer kolektibo eta interes-talderi zuzenduta egongo den ondo identifikatuta egotea. (PUNTU 2)
- Interes-taldeentzat erakargarriak diren banakako sariak proposatzea eta emaitzak erabili eta erreplika egitea ahalbidetzeko erabilera komuneko baliabideak eskura jarrita, kodea irekita eta lizentzia libreak erabilia. (2 PUNTU)
- Proposamenaren kalitatea eta originaltasun- nahiz berrikuntza-maila, egungo ezagutzaren, produktuen eta zerbitzuen eskaintzari dagokionean nahiz komunitatearentzat desiragarriak diren eta euskararen egoera eraldatzeko eragin positiboak sortzen dituzten balioak sustatzeari dagokionez. (3 PUNTU)
- Partaidetza-kudeaketa gardena, lankidetzajardunbideak edota eragileen arteko lankidetzaren sustatzea. (PUNTU 1)
- Proiektua Gasteizen garatu eta burutzea, eta proiektuaren bidez Gasteizko kultura euskaldunaren esparrua aberastu eta bertan elkarri lotzea, eta, halaber, Gasteizko ekosistema kulturean sar daitezkeen kalitatezko eta sormenezko proiektu eta ekimenak dakartzaten eragile berrien agerpena sustatzea. (3 PUNTU)

Ebaluazio Batzordea eta hautatuei jakinaraztea

Irizpide horiek jarraituz, proiektuak ebaluatu eta hautatuko ditu epaimahai batek. Epaimahai hori berriaz eratuko da ondorio honetarako eta Oihaneder Euskararen Etxeko, Gauekoak Elkartearen Federazioko eta Gasteizko Udaleko Euskara zein Gazteria zerbitzuetako kideek osatuko dute.

Talde ebaluatzaileak proiektuei buruzko informazio gehiago eskatu ahal izango du eta, halaber, beharrezkotzat jotzen badu, aholkularien laguntza eskatu ahal izango du, behar bezala baloratzeko berriazko ezagutza beharrezkoa duten gai jakin batzuetarako.

Antolatzaileek beretzat gordeko dute proiektuak ez argitaratzeko eskubidea, bai plataforman argitaratzeko oinarri hauetan zehaztutako oinarrizko irizpideak betetzen ez dituztelako, bai eta eskaini zaien aholkularitza jarraitu edo hartan aktiboki parte hartu ez dutelako ere.

Hautatutako proiektuen sustatzaileei indibidualki egingo zaie jakinarazpena posta elektroniko bidez eta zerrenda osoa Batera! eta Itsulapikoa.eus web-orrietan argitaratuko dira 2019ko urtarrilaren 10a baino lehen.

4.4 Aholkularitza hautatutako proiektuei

2019ko urtarrilaren 14tik otsailaren 8ra arte, hautatutako proiektuen sustatzaileek online aholkularitza espezializatua eta banakakoa jasoko dute, egokitzen eta optimizatzen amaitzearren.

2019ko urtarrilaren 18ko lantegira joatea nahitaezkoa da hautatutako 3 proiektuen arduradunentzat (proiektu bakoitzeko gehienez 3 pertsona)

5.- CROWDFUNDING KANPAINAK EZAGUTZERA EMATEA

2019ko otsailaren 10ean, aldi berean ezagutzera emango dira hautatutako proiektuen crowdfunding-a bultzatzeko kanpainak; kanpaina horien bidez, proiektuen sustatzaileek, herritarrek, Oihaneder Euskararen Etxeak, Gauekoak Elkarteen Fe derazioak, Itsulapikoa elkarteak eta beste kolaboratzaile-eragile batzuek ahaleginak batuko dituzte aurretiaz finkatutako finantzaketa-helburuak erdiesteko.

Proiektu bakoitzak elementu hauek izango ditu: aurkezteko berezko espazioa, albisteak eman eta eguneratzeak egiteko bloga, 2.0 komunikazio-tresnak, ordainketa-pasabidea, etab. Kanpaina garatzeko denbora otsailaren 11tik martxoaren 22ra bitartekoa izango da.

Crowdfundinga bultzatzeko kanpaina amaitu eta hurrengo hiru hilabeteetan, Itsulapikoa eta Oihaneder eta Gauekoak-ek proiektu arrakastatsuen eta haien helburu eta konpromisoen jarraipena egingo dute, parte hartzen duten eragileek eta kolaboratzaileek kasu bakoitzean ezarritako epeei jarraituz.

6.- BATERA CROWDFUNDING EKIMENAREN FUNTZIONAMENDUA

Batera egitasmoak 3000 euro arteko diru-laguntza poltsa bat du, herritarrek Itsulapikoa plataformaren bidez proiektuei ematen dizkieten banakako ekarpenak osatzeko Oihanederrek eta Gauekoak-ek ipiniak.

Batera egitasmoaren crowdfunding-ak horrela funtzionatuko du kanpainan zehar :

a) Oihaneder Euskararen Etxeak eta Gauekoak Elkarteen Federazioak jartzen duen Batera egitasmoaren crowdfunding osoa 3000 eurokoa da gehienez.

b) Itsulapikoak egindako crowdfunding kanpaina guztietan, proiektuarentzat ipinitako crowdfunding-a ordaindu ahal izateko proiektua bere gutxieneko finantzaketara iritsi behar da kanpainaren lehenengo 40 egunetan.

d) Proiektu bakoitzerako laguntza 1000 eurokoa izango da, eta hiritarren artean egindako diru bilketari gehituko zaio.

e) Lehenengo 40 egunak igaro eta gero proiektu batek edo batzuek gutxieneko finantzaketa-helburura iristea lortzen ez badute, proiektu horiek bildutako kopuruak ez dira eraginkor egingo.

h) Crowdfunding-aren ordainketa eta hiritarren dohaintzak batera egingo dira.

7.- CROWDFUNDING-AREN ETA ITSULAPIKOA ELKARTEAREN INGURUKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA

Itsulapikoa elkarte eta itsulapikoa.eus

Oihaneder Euskararen Etxeak eta Gauekoak Elkarteen Federazioak Itsulapikoa elkartearekin batera **Batera** egitasmoa garatzeko aukeratu duen bidea crowdfunding-a da, talde-finantzaketa egiteko tresna bat. Crowdfundingaren oinarria ez da eskatzea, aitzitik, proiektu baten inguruan dauden interes-taldeak parte hartzera bultzatzea eta horiei eragitea da; hala bada, finantzazioa lortzeko modu batetik harantz, harremanetan jartzeko eta lankidetzan aritzeko modu berria proposatzen du.

Batera egitasmoa Itsulapikoa plataformaren bidez garatuko da.

Itsulapikoa.eus Euskal Herriko edo Euskal Herriarekin zerikusia duten herri proiektu eta egitasmoek behar duten bultzada ekonomikoa lortzeko crowdfunding plataforma bat da. Gure herriko sortzaile, musika talde, kultur kolektibo, herri mugimendu, tokiko ekonomian oinarritutako egitasmo edo proiektu alternatiboentzako diru iturri erreferente izatea da gure helburuetako bat.

Itsulapikoa.eus plataformaren atzean irabazi asmorik gabeko Itsulapikoa Elkarte izeneko elkarte dago. Elkartearen funtzionamendua gardena eta horizontala izango da, irekia egongo da aipaturiko helburuekin bat egin eta plataformari modu ezberdinez bere ekarpena egin nahi dion ororentzat.

Aipatu den motako proiektu edo egitasmoren bat duen kolektibo edo pertsona orok aukera du crowdfunding plataforma honen bidez herritarren ekarpenak jasotzeko.

Crowdfundingak oro har, eta Itsulapikoa.eus -ek bereziki, hainbat berezitasun dituzte, Batera! egitasmora aurkeztutako proiektuak modu eraginkorrean doitu ahal izateko kontuan hartu behar direnak. Jarraian, alderdi horietako batzuk labur azalduko ditugu.

Zergatik crowdfunding plataforma bat?

Euskal Herrian antzinatek errota dagoen ohitura bati lotuta dago crowdfundinga, auzolanari edo elkarlanari hain zuzen ere. Herri proiektuak aurrera ateratzeko ahalegin kolektiboan oinarritzen da auzolana, crowdfundinga ere lan eta ekarpen kolektiboan oinarritzen dela esan genezake.

Bestetik, jendeak gaur egun eskatzen duen beste ezaugarri bat asetzen du crowdfundingak. Elkarre edo 'marka' zehatz bati atxikimendu iraunkorra eman beharrenean, hauek bultzatzen dituzten proiektu zehatzei babes emateko aukera eskaintzen dio jendeari.

Proiektugileei ere aukera paregabea eskaintzen die euren jardura neurtze aldera. Crowdfundingaren bidez jendeak benetan baloratzen duena neurtzeko aukera baitute.

Zerk bereizten du itsulapikoa beste plataformetatik? Zein abantaila ditu?

Estatuan nahiz Katalunian antzeko plataformak existitzen dira dagoeneko, gurea aldiz, **Euskal Herriari begira egindako plataforma da**. Horrek abantaila batzuk ditu. Alde batetik, proiektuen hurbiltasunak eragin dezakeen atxikimendua. Eta bestetik, Euskal Herri mailako erreferentzia komunikatibo bat izanen da itsulapikoa.eus, Euskal Herriko proiektu herritarren erakusleho bat, horrek proiektuen hedapena asko erraztuko du, noski. Adibide bat jartzearren, une jakin batean norbait proiektu bati ekarpen bat egiteko asmoz plataformara sartuz gero, uste dugu gertatuko dela antzeko edo hurbileko edo interesa dakioken beste proiektu batzuk ere aurkitzea, eta horiei ekarpena egiteko edo gutxienean kanpaina horren zabalpena egiteko aukerak handiagoak direla.

Beste ezaugarri berezitu eta interesgarri bat gure plataformaren **komisioak** dira. Beste plataformekin alderatuta gureak gordetzen duen ekarpenen portzentajea minimoa da eta ordainketei ezartzen zaien bankuko komisioak baxuenetakoak dira ere bai. Honekin lotuta, azpimarratu beharra dago plataforma honen atzetik dagoen lantaldea **irabazi asmorik gabeko lantaldea** dela.

Nori zuzenduta? Nork jar dezake proiektu bat?

Itsulapikoa.eus plataformaren izaera eta asmoekin bat egiten duten pertsonak zein taldeek argitara ditzakete euren proiektuak. Hau da, Euskal Herriko testuinguruan eta herri ikuspegi batetik ekarpen sozial, kultural, linguistiko, ekonomikoa egin nahi duen orok jar dezake bere proiektua itsulapikoa.eus plataforman.

Nork egin ditzake ekarpenak?

Plataforman publikatutako edozein proiektua bultzatu nahi duen edozein pertsonak zein taldek egin ditzake ekarpenak. Proiektu bakar bati edota proiektu

ugariei egin diezazkioke ekarpenak. Ekarpen hauek kopuru txikikoak nahiz handikoak izan daitezke eta ekarpen hauek eskertzeko proiektugileek bueltan sari bat emanen die.

Nola funtzionatzen du?

Plataformaren funtzionamendua erraza da. Proiektu bat duen edonork gure plataforman erregistratu eta euren proiektua publikatzea eska dezake. Horretarako, plataforman agertzen den formulario bat bete beharko du.

Zehaztu behar duten ezaugarri garrantzitsuenetariko bat proiektua aurrera ateratzeko behar duen diru sarrera minimoa da. Hau da, ekarpenen bidez eskuratu beharreko kantitate minimoa, eta noski, kantitate hori erdietsiz gero proiektua aurrera ateratzeko konpromezua beren gain hartuko dute.

Edozein kasutan, laguntza emate aldera, plataformaren kudeatzaileak proiektugileekin harremanetan jarriko dira kanpaina nola enfokatu eta zabaldu laguntzeko, baita edozein laguntza tekniko eskaintzeko.

Behin proiektu bat publikatuta, crowdfundingak 40 egun izanen ditu finkatu duen diru kopurua biltzeko. Momentu horretatik aurrera, eta 40 egun horietan zehar, edozein pertsonak zein taldek bere ekarpen ekonomikoa egiteko aukera izanen du, erabiltzaile bat eginez eta bankuko txartel bidez ordainketa eginez.

Garrantzitsua da azpimarratzea, soilik finkatutako sarrera minimoak lortzen dituzten proiektuetan eginen dela efektiboa ekarpenaren ordainketa. Hau da, proiektu batean diru minimoa lortzen ez bada ekarpenak ez dira gauzatzen, eta ez du inolako kosterik ez proiektua jartzen duenarentzako ezta ekarpena egiteko konpromisoa hartu duenarentzako.

Zeintzuk dira plataformaren baloreak?

Gure helburu guztien gainetik, eta gure sorreraren arrazoia dena, Euskal Herriko jendeari eta bereziki herri mugimenduari zerbitzu eta tresna bat eskaintzea da. Alde batetik, noski, euren proiektu sozial, kultural, kooperatiboa edota dena delakoan diru bilketa errazte aldera eta bestaldetik, proiektu hauen hedapenean laguntze aldera.

Honekin batera, bertako hizkuntzari, euskarari dagokion balioa aitortu nahi diogu. **Euskara lehenesten dugu** itsulapikoa.eus plataforman. Horregatik, proiektuaren informazioa frantsesez edo gaztelerez jarri nahi duenak ere, gutxienean titulua eta laburpen bat euskaraz jarri beharko du derrigor. Alegia, euskara hutsean publikatu daiteke proiektu bat, ez ordea gaztelera edo frantses hutsean, beti egon beharko da gutxienez euskarazko laburpena.

Gardentasuna ere gure izaeraren ezaugarrietako bat da. Lan eginen dugu proiektuaren kontuen nondik norakoak eta erabakiak modu garden batean

aurkezteko. Plataformaren mantenu eta kudeaketa lanetarako behar diren diru sarrera minimoak jasotzen ditu elkarteak eta kontu guzti-guztiak publikoak eginen dira.

Irabazi asmorik gabeko plataforma da gurea eta onura guztia proiektugileek eta ekarpenak egiten dituztenek jasotzea nahi dugu. Bai proiektugileek, bai ekarpenak egiten dituztenek garbi izanen dute zer gertatzen den ekarpen horiekin guztiekin.

Pribatutasun eta datuen babesa ere oso serio hartzen dugun kontua da, horregatik prozedurak eta norabide horretan hartu beharreko neurriak kontutan hartzen ditugu.

Azkenik, edozein ekarpen tekniko, edozein iritzi edo dena delako entzuteko irekita gaude, gure asmoa da jendearekin batera funtzionamendu zein tresna egokiago eta eraginkorragoa lortzea.

Bestelako informazio garrantzitsua

Aurkeztuko den proiektua hobeto prestatzeko, material hauek kontsultatzea gomendatzen dugu:

- Crowdfunding-ari eta Itsulapikoa.eus plataformari buruzko informazioa: <https://www.itsulapikoa.eus/faq>
- Itsulapikoa plataformari buruzko bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=dHp-JS74aSY>

8.- ORDAINKETA MODUA

Ordainketa diru bilketa kanpaina bukatutakoan egingo da.

Itsulapikoa Elkarteak pribatuen aldetik bildutako diru kopuruaren % 5,5 + BEZeko komisioa kobratuko die arrakastaz finantzaturako proiektuei, plataformako zerbitzuak, euskarri teknikoa, ordainketa-kobratze kudeaketa, eta abarren zerbitzuak erabiltzeagatik.

Proiektuaren egile edo bultzaileak, hau da, dirua jasotzen duenak, tokian tokiko ogasunak ezartzen dituen irizpide eta arauak bete beharko ditu.

Egitasmoa bultzatzen duenak, emaleekin hartutako konpromezuak bete beharko ditu, alegia, ordain sariak gauzatu edo eman, materialak ala ez materialak izanik ere.

Proiektua gutxieneko aurrekontura iristen ez bada, ez da komisorik kobratuko, eta kanpainaren garapenak ez du kosturik izango sustatzaileentzat.

Lortutako ekarpen pribatu guztien batura –Itsulapikoari eman beharreko % 5,5 + BEZa kendu ondoren– proiektu bakoitzak kanpaina hasi aurretik eman duen bankuko kontuan ordainduko da.

Kanpainari lotutako gainerako zerbitzuak –3 proiektuak barnean hartuko dituen mikrogune bat sortzea da; ekimena ezagutzera ematea eta hedatzea; hedatzeko ekintzak antolatzea; eta proiektu bakoitzari banakako aholkularitza ematea– Oihaneder Euskararen etxeak eta gauekoak Elkarteen Federazioak hartuko ditu bere gain eta Itsulapikoa Elkarreak eskainiko ditu.

Halaber, kanpainak irauten duen 40 egunak iragandakoan eta finantzatzaileei kobratzeko orduan gerta daitezkeen gorabeherak zehaztu eta konpondu ondoren, proiektu bakoitzaren sustatzaileari egingo zaio ordainketa, kanpainaren iraunaldian proiektuak jasotako ekarpen guztien izaera eta jatorria zehaztuta dauzkan txosten bat ematearekin batera.

Aurreko edozein baldintza beteko ez balitz, Itsulapikoa Elkarreak bere esku dauden neurriak erabiliko ditu, juridikoak barne, sor daitezkeen egoerari irtenbide bat emateko.

9.- XEDAPEN OROKORRAK

Batera egitasmorako deialdian parte hartzeko Itsulapikoa.eus plataformako baldintza orokorrak onartu behar dira, eta oinarri hauek osorik eta baldintzarik gabe onartu behar ditu proiektu bakoitza sustatzen duenak.

Horrez gain, ziurtzat jotzen da aurkeztutako proiektuaren egilea eta titulartasuna bermatuta daudela, eta ez direla urratu beste inoren obraren jabetza intelektualaren eskubideak.

Proiektuak Itsulapikoa plataforman sartzeak ez du inolaz ere esan nahi Itsulapikoa Elkarteari uzten zaionik jabetza intelektual edo industrialaren eskubiderik.

10.- INFORMAZIO GEHIAGO ETA HARREMANA:

Deialdiari, garapen-faseei eta proiektu motari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, eta Batera! egitasmoaren gaineko beste argitasun eta kontu praktikoko batzuk lortzeko, gurekin harremanetan jar zaitezke helbide hauetan:

- Oihaneder Euskararen Etxea– oihaneder@oihaneder.eus
- Itsulapikoa: info@itsulapikoa.eus
- Deialdiaren web orria: <https://www.itsulapikoa.eus/deialdiak/batera>